

Egilea: PATZIKU PERURENA

Titulua:

Leitzako bordak, sorreran (1557-1965)

Saio eta testigantza, 130

ISBN: 978-84-9172-181-9

24 x 17 cm • 512 or.

Salneurria: 25,00 €



Leitzako bordak, sorreran (1557-1965)

Liburu honek, Leitzako bordak (baserriak) noiz eta nola sortu ziren erakutsi nahi dizu. Ikerlanak hori dizu ardatz, nahiz horren aitzakian beste datu osagarri asko txertatu egileak, ohiko duen estiloan.

Horrez gainera, mendez mende hauspean pasa ondoren, orain arte inork aztertu gabeko iturburu birjinetik atereak izateak, berebiziko balioa ematen die liburu honetako datuei. Baina, iturburu finenera jotzeak ez du berez kalitate onik bermatzen, eskarmenturik ezean. Eta hori ongi erakutsia dauka egileak.

Izanez ere, trilogia moduko bat isten baitu liburu honek, iaz Pamielan argitara genuen *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson* eta 1996ko *Leitzako errege erreginak* liburuekin batera.

Hiru liburuok elkarren osagarri ezinbanatuzko izanen baititu biharko ikerle leitzarrak edo nahinongo euskal herritarrak. Baina, hiruetan dokumentuz hornituena, esku artean duzun hauxe: *Leitzako bordak, sorreran*; bordarik borda, hamaika datu berri jasotzen baitu Leitzako bordagintzaz (baserrigintzaz).



PATZIKU PERURENA

Goizuetako Aitasemegi auzoko bordari giroan jaio zen 1959an, baina Leitzako Amazabal kalean bizi da hamabi urte zituenetik. Hala ere, sekulan ez omen du galdu, bere izate guzia zor omen dion bordari giroko eskola estzeptiko hura. Esku artean duzun liburu hauxe lekuko, eta ondotik etorriko direnak. Baina lehendik onduak ere baditu.

Hamaika artikulu, iritzi eta kontu bixiren artean, hona saiorik ezagunenak: *Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak* (1990), *Koloreak euskal usuarioan* (1992), *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993), *Leitzako errege erreginak* (1996), *Harrizko pareta erdiurratuak* (2004), *Goizuetan bada gizon bat* (2010), *Goizuetako etxeen izenak* (2011), *Hilen xarma* (2015), *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)* (2017), *Leitzalarreko Unaiak (1683-1771)*, *Zezenak plazan*, *Goizuetan eta Leitzan (1578-2017)* (2018), *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)* (2019).